




Global express

GAURKOTASUNA IKASGELAN

16

Dossiera | Gida didaktikoa | ► Jarduerak

Kopenhage: azken deialdia



Corbis / Corbis press


1

Zer iradokitzen dizuite argazki hauek?

2

Zertarako elkartu dira pertsona hauek, zuen iritziz?

Nazioarteko goi bilera



Zer da nazioarteko goi bilera bat?

Urtean zehar, behin baino gehiagotan, albis-teetako batean hainbat herrialdetako zuzendariak agertzen dira goi bilerako, bilkurako edo konferen-tziako “familiartekoen erretratu” deitzen den ho-rretan. Bilkura horiek oroimenean irauten dute egin diren tokiaren izenarekin. Klima-aldaketa ari ba-gara, Rioko (Rio de Janeiron egin baitzen) Goi Bilera edo Kiotokoa etorriko zaizkizu gogora. 2009 urtea-ren kondarrean klima-aldaketa bestea goi bilera bat egingo da, Kopenhageko Goi Bilera, alegia.

Goi bilera horiek globalak izaten dira, hots, hainbat estatutako gobernuen ordezkariak elkar-tzen dira bertan, nazioarteko komunitatearen bai-tan eragina duten aferak jorrazteko: klima-aldake-ta, nekazaritza edo merkataritza politikak, etab. Goi bilera horietan erabakitzen diren akordioak, batzue-tan, tokian tokiko parlamentuek berretsi egin behar izaten dituzte edo, bestela, praktikan jarri ahal iza-teko zenbaitetan ordaintzen ez diren funtsen finan-tzaketa behar dute: horrek esan nahi du erdietsiriko akordioak ere beti-beti ez direla gauzatu egiten.

Nork hartzen du parte nazioarteko bilera batean?

Horrelako goi bilera batean ordezkari politikoe-k esku hartu izan ohi dute, antolakuntzak gonbida-turik, oro har. Kopenhageko Goi Bilerari dagokio-

nez, partaideak Nazio Batuen Erakundeak (NBE) baimendu eta kreditatzen ditu. Parte hartzea nola gauzatzen den jakin nahi baduzu, irakurri Goi Bile-raren web ofiziala (<http://es.cop.15.dk/>).

Nolako rola jokatzen du bertan gizarte zibilak?

Zuzenki gomitaturik ez dagoen arren, gizarte zibilak ere eragin handiko rola jokatzen du. Alde batetik, goi bilera ofizialen inguruan alternatibako bilerak antolatzen dira maiz. Bigarren hauetan, hainbat izaeratako erakunde sozialek proposa-men ofizialak aztertu eta beste batzuk proposa-

tzen dituzte. Horiek ez ezik, goi bilera hasi aurre-tik, erakunde horiek ordezkari politikoei presioa eragiten diete bileren agendan proposamen jakin batzuk sartu, beste batzuk sostengatu edo beste batzuk beta ditzaten. Azkenik, goi bilera amaitu-takoan, sekulako garrantzia duen rola jokatzen dute, gobernuari harturiko konpromisoak gogora-tuz, oroitaraziz.



Informazio hau osatu nahi baduzue, irakurri Kopenhageko Goi Bileraren web ofizialean ez ezik, hainbat erakunderenetan ere agertzen dena: Oxfam, Greenpace, Ecologistas en Acción eta antzekoetan.

Nolako konpromisoak hartu ditugun eta zein bete dugun



PhotoDisc

Estatua	Kiotoko Protokolorako konpromisoa	1990-2006 aldaketa	2006ko emisioak	per cápita emisioak
	1990-2012 arteko aldaketa (%)	%	mila milioika tona	tona laguneko
Luxenburgo	-28,00	1,03	13.322	27,09
Australia	8,00	28,81	536.066	24,63
Estatu Batuak	-7,00	14,38	7.017.321	22,90
Kanada	-6,00	21,67	720.632	21,41
Zeelanda Berria	0,00	25,70	77.868	18,07
Errusiar Federazioa	0,00	-34,16	2.190.239	15,44
Finlandia	-2,60	13,17	80.291	15,05
Txekiar Errepublika	-8,00	-23,70	148.204	14,15
Estonia	-8,00	-54,62	18.876	14,08
Islandia	10,00	24,22	4.234	13,26
Danimarka	-21,00	2,23	71.914	13,04
Belgika	-7,50	-5,23	136.970	12,75
Herbehereak	-6,00	-1,97	207.477	12,56
Alemania	-21,00	-18,16	1.004.794	12,24
Grezia	25,00	27,26	133.112	11,82
Irlanda	13,00	25,64	69.762	11,66
Norvegia	1,00	7,67	53.512	11,11
Austria	-13,00	15,05	91.090	10,90
Erresuma Batua	-12,50	-15,05	655.787	10,64
Polonia	-6,00	-28,93	400.459	10,50
Japonia	-6,00	5,35	1.340.081	10,50
Eslovenia	-8,00	1,24	20.591	10,03
Ukraina	0,00	-51,93	443.183	9,60
Italia	-6,50	9,87	567.922	9,45
Espainia	15,00	50,63	433.339	9,45
Bulgaria	-8,00	-46,20	71.343	9,38
Eslovakia	-8,00	-33,63	48.902	9,04
Frantzia	-1,90	-3,51	546.527	8,40
Bielorrusia	sin meta	-36,40	80.996	8,36
Europar Batasuna	-8,00	-2,19	4.151.079	8,31
Hungaria	-6,00	-32,13	78.625	7,84
Portugal	27,00	39,98	82.739	7,78
Liechtenstein	-8,00	18,96	273	7,67
Errumania	-8,00	-44,42	156.680	7,29
Suedia	4,00	-8,74	65.749	7,09
Kroazia	*	-5,21	30.834	6,96
Lituania	-8,00	-52,96	23.222	6,93
Suitza	-8,00	0,77	53.209	6,90
Letonia	-8,00	-56,07	11.621	5,15
Turkia	*	95,09	331.763	4,64
Monako	-8,00	-13,07	94	2,84

3


Taulari begiraturik ikusiko duzue Luxenburgok 1990etik 2020era beren emisioen %28 murrizteko konpromisoa hartu zuela. Halaz ere, 2006an, 1990 urtearekiko, %1,03 areagotu zituen. Prozedura horri jarraiki, zein herrialdek areagotu dute emisioen portzentaje handiena?

4

Konparatu taulan, herrialdez herrialde, guztirako emisioak eta laguneko emisioak. Nolako ondorioak atera dituzue?

Kiotoko 36 estatuak: agindutakoa eta beterikoa

Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_Kyoto_Protocol_signatories



Zuten eta benetan murriztu dutena erakusten ditu grafikoak. Begira arretaz grafikoari eta, ondoren, erantzun:

5

Zein herrialdek bete dituzte harturiko konpromisoak eta zeinek ez?

6

Dute zorrotzen agindutakoa?

Iker ditzagun ondorioak... eta ondorioak nozitzen dituztenak



Antzinako istorio urruna

Yucatan, X. mendean. Golkoko Korronteak iparralderantz egin du, hori bezalako sistema konplexu batean aurreikusteko modukoa den berezko fluktuazioetako batez, eta, ondorioz, Norvegiako kostaldea epeldu duenez, biztanleria ugaltu, hazi egin da. Bertan egokitu ez zirenak beste norabait irten ziren bikingo moduan, hau da, pirata txangoetan. Groenlandiako kostaldearen ertz estu-estu bero-tu zen eta, horri esker, jatorri norvegiarreko kolonia bat kokatu zen bertan. Golkoko Korrontearen lekualdatze horrek, aldi berean, Yucatan penintsulan, 70 urtez luzatu zen lehortea ondorioztatu zuen. Amerikar herrialde hartan maiek zibilizazio oso bat finkatua zuten, beren harrizko eraikin eta guzti, euri-

urak andel edo gordailuetan metatzea eta kanalen bitartez lurra ureztatzea euskarri nagusietako bat izaki. Ura zegoen bitartean biztanleria ugaltu zihuan: horren parte bat mendi hegaletan finkatu zen.

Euria ari zuenein, arazorik ez. Herrialdeaz lehortea jabetutakoan, ordea, ibarreko biztanleek ura gutxiago zeukaten, baina erabili ahal izaten zuten; luze gabe, baina, mendi hegaletako herriak egarri suertatu ziren. Ondorioz, baliabideak eskuratzeko egin ziren gupida gabeko gerrateek zibilizazio haren erabateko suntsipena ekarri zuten.

Antonio Ruiz de Elvira. Alcala-ko Unibertsitatea.
Klimako Europar Foroaren Zientzi Kontseilua.

7

Zuen iritziz, maien kulturari egokitu zitzaiona guri gerta ahal dakiguke? Arrazoitu erantzuna.

8

Zein baliabideren gabeziak jarriko luke arriskutan praktikan planeta osoan nagusitu den gure zibilizazio honen biziraupena? Zer gertatuko litzateke gure eguneroko bizimoduan baliabide hori izan ezean? Zer, gure ingurunean? Zer, gure herrialdean? Zer, planeta osoan?

Zer dioen prentsak

9

Irakurri informazioak eta egin ezazue zerrenda bat, horietako bakoitzean deigarrien gertatu zaizkizuen ondorioetako batzuk adieraziz.

10

Taldekatu horiek lau-pabost aleko mordoxketan eta adierazi ondorioak: klima-aldaketa nork ordaintzen du larrutik? Azaldu hori gero, ikasgelako taldean.

Gertuko adibide bat

**Valentziako garapen ereduak
negutegi efektuko emisioak
%85ez areagotu ditu**

*Itsas biodibertsitatea, ur-baliabideak,
arrantza eta turismoa eragin ditu
ordaingo klima aldaketak.*

Ecologistas en Acción. País Valencià, 2008ko azaroa

**Natur hondamendiak hirukoiztu egin
da 1970etik 2002 urtera arte**

Epe horretan, ekaitzek eta uholdeek
kalteturiko pertsonen kopurua, 740 milioitik
2.500 milioi izatera igaro da.

Intermon-ek kalte-ordainak eskatu ditu klima-aldaketaren ondorioak nozitu dituzten herrialde txiroentzat

EFE – Valentzia, 07.11.14

Europa 2003an astindu zuen beroaldiak 40.000 gizakiren heriotza eragin zuen

Mende honen hondarrean oso litekeena da bi udatik bat 2003ko hura bezain beroa izatea.

WWF

Gizakiak eraginiko negutegi efektuko gasen emisioek Europa osoan barrena bero-uhinen arriskua bikoiztu egin dute.

Nature

Berotze globalak hondamendien biktimen kopurua %50ez areagotuko du

Gustavo Catalán Deus | Madril

Klima-aldaketarekin loturiko natur hondamendiek kalteturiko pertsonen kopurua 133 milioi gizakitan handituko da datozen sei urteetan [...] Sei urtetan bakarrik gertaturiko kaltetuen %54 areagotze horri erantsi beharko genizkioke dagoeneko hondamendi horien biktima izan direnak. Aurreikuspenen arabera, 2015 urtean 375 milioi pertsona izango omen dira fenomeno horiek kalteturikoak, horietako gehientzuenak herrialde txiro-tuetan..

Elmundo.es, 09.04.23

ERREPORTAIA

25 milioi paria klimatiko

Ingurugiroak hertsaturiko errefuxiatuak politikoen bi halako dira

“Horixe badirela ingurugiro-kontuengatiko errefuxiatuak. Uharte apal-apaletako biztanleak lekuz aldatzen ari dira aspaldion itsas maila igotzearen eta kostaldearen erosioagatik; badira Txinan barnean migrazioak basamortutzeagatik eta herritar asko ahaleginetan dabilta Balgladesh-etik irteteko, geroz eta uholde larriagoak nozitzen dituztelako. Ingurugiro-faktoreek eragina dute, noski.”

François Gemenne, Garapen Iraunkorreko eta Nazioarteko Harremanetarako Institutuko ikerlaria

EL PAIS.com. Poznan, 08.12.08

Klima-aldaketaren kontrako borrokak lidergo politikorik gabe dirau

Greenpace-ren iritziz, lastima da egunotan Bonnen izaniko mundu osoko lider politikoen bilera konpromiso garbirik hartzeke amaitzea.

Europa osotik etorritako Greenpace-ko hirurehun aktibistak, goizean, Ekonomia ministroen biltoki izan den Bruselako eraikineko irteerak blokeatu egin dituzte. Klima-aldaketari aurre egiteko, garapenean dabilzan herrialdeei eman beharreko finantzaketa eztabaidatzen ari dira politikariak.

Greenpeace Espainia, 09.04.09




Xavier Alamy

Gutxiago gehiago da - = +

“Lurreko biztanle guztiak europarrok bezala biziko balira, beren sistema moderno eta guzti, hiru planeta kontsumituko genituzke. Amerikar bizi-modua aurrera eramateko... sei planeta beharko lirateke, kasik. Burkinatarrak, berriz, 0,1 planeta aski izango luke. Hori dela-eta, deus egin gabe eta urtean %2ko hazkuntza (ekonomistek hori ahultzat jotzen duten arren) eragiten segitzen badugu, 2050 urtean hogeita hamar planeta kontsumituko ditugu.”

Ingurugiroko ministro Pan Yu-k 2005eko apirilean honelako adierazpenak egin zituen:

“Mirari ekonomikoarenak aurki egingo du, ingurugiroak ezin baitezake horren martxan segitu. Gure lurraldearen herenak euri azidoak nozitzen ditu, gure zazpi ibai nagusietako uraren erdia egun ezin erabil daiteke, gure aberkideen laurdenak ez dauka ur edangarririk [...] Datozen urteotan Txinan 150 milioi pertsona emigratu ekologikoak izango dira [...] Akats larri bat izan dugu: hazkuntza ekonomikoak eta honek ematen dituen finantza-baliabideek ingurugiro alorreko krisiei eta biztanleriaren gehitzeari erantzuteko aukera emango zigutela sinetsi izan dugu.”



Nicolas Ridoux. *Gutxiago gehiago da. Gutxitzearen filosofiarako hastapenak*. Los libros del lince. Bartzelona, 2009



Marrazkiok ikusi eta testuok irakurritakoan, erantzun galdera hauei:

11

Ba al dugu geure bizimodu honekin segitzerik? Zergatik?

12

Kontsumo eta hazkuntza hauek bidezkoak al dira edonorentzat?

13

Zer gertatzen zaio, zuen ustez, ezkerreko irudian agertzen den gizonari? Zer egin beharko luke askeago izateko?



Irakurri ondorengo ipuina eta erantzun ondoren agertzen diren galderei.

Mexikoko kostaldeko herrixka batean iparramerikar batek, bertako arrantzalea kuluxka egiteko puntuan ikusirik, honela galdetu dio:

–Zergatik ez duzu arrain gehiago harrapatzen?

Mexikarrak, eguneroko arrantza horrekin, familiaren premiak asetzeko aski duela erantzun dio.

Iparramerikarrak, hori entzunikoan:

–Gainerako denboran zer egiten duzu, orduan?

–Berandu jaiki, seme-alabekin jolasean aritzen naiz, arrain batzuk harrapatu, andrearen aldamenean lo kuluxka bat egiten dut eta arratsaldean lagunak ikustera joaten naiz. Ardoa edan eta gitarra jotzen dugu han. Bizitza bete-betea dut.

Iparramerikarrak eten dio:

–Bete ene aholkua. Harrapa itzazu arrain gehiago, jardun luzaroago. Aterako dituzun etekinekin txalupa bat ekarri, zeure fabrika ireki ahalko duzu eta,

Mexikoko zure herrixka hau bertan behera utzirik, New Yorken bizi ahal izango zara: handik agindu eta zuzenduko dituzu zure negozioak.

–Eta... horren ondoren? –mexikarrak.

–Horren ondoren –erantzun dio iparramerikarrak–, gauzak ongi joatekotan, akaso zure enpresak burtsan kotizatu eta milioiak irabaz zenitzake.

–Milioiak, hara! Eta, horren ondoren? –arrantzaleak, tematsu.

–Horren ondoren, lana bertan behera utzitakoan, kostaldeko herrixka batean bizi zintezke eta, han, goizean berandu jaiki, seme-alabekin jolasean ari-tuko zinateke, arrain batzuk harrapatu, andrearekin lo kuluxka egingo zenuke eta, arratsaldean, lagunekin egongo zinateke, gitarra joaz eta ardoa edanaz.”

François Partant. “Mendebalde, jarraitu beharreko eredu?”
L'Ecologiste, 6 zk. 2001



14

Zer adierazten digu ipuin horrek?

15

Zuen iritziz, gure gobernuak eta enpresak prest al daude arrantzale horren bizimodua praktikatzeko?



Mundu zabalean pertsona eta kolektibo askok klima-aldaketaren zergati eta ondorioen aurkako borrokan dihardute. Guk, http://news.bbc.co.uk/hi/spanish/specials/2009/soluciones_creativas web gunearen bitartez, ekintza horietan barrenako ibilbidea egitea proposatzen dizuegu hemendik.

16

Nabarmendu: zuen ustez zein izan daitezke interesgarrienak eta zeinek balio dezakete alternatibazko eta benetako eredu gisa? Nahi baduzue, ezagutzen dituzuen bestelako ekimen edo mobilizazioak aipa ditzakezue, adibide gisa.

Bizimakinak, bizitzeko aukerak

Amets handiak dituen gizona da Carlos Marroquín. Berak “bizimakinak” sortzen eta diseinatzen ditu, hau da, erabilitako txirringen atalez osatu eta pedalez funtzionatzen duten aparatuak, era askotako zereginak betetzeko: ura ponpatzea, laboreak ureztatzea, arropa garbitzea, artoa aletzea edo likuatuak egitea, besteak beste.



PhotoDisc

Simaurretik erregaira

Behi-ustiategi batean behiak gau eta egun dabilta larrean, jan eta jan, gero hausnarrean. Hantxe jezten zaie esnea, gazta eta esnekiak ekoizteko, eta hantxe pilatzen dira egunero simaur kopuru galantak. Duela urte eta erdi hasita, Lecchini sendiaren ustiategi txikia da behien gorotzak energia eta, aldi berean, ongari organiko ere bihurtzeko baliatzen duten Uruguaiako seieta bat.

“Lursail batean belarrik ez zen etortzen baina, ongari horri esker, lur emankor bilakatu da”, adierazi dute Lecchinitarrek.

Miguel Lecchini



PhotoDisc

Zuhaitzak, planeta salbatzeko

“40 milioi ale aldatuko ditudala zin dagit”

Peruko Nekazaritza Ministerioak kanpainarekin bat egin du aresti eta, 2009ko otsailaren 20rako, berrogei milioi zuhaitz landatzea agindu zuen.

Zuhaitz gehien landatu dituzten herrialdeak hauek dira: Etiopia, Turkia eta Mexiko.

Kanpainak berebiziko arrakasta izan duenez, antolatzaileek helmuga zazpi mila milioi zuhaitzetan finkatu zuten, hots, Lurreko biztanle bakoitzeko arbola bana.




[http://commons.wikimedia.org/wiki/File:Bomen_\(Lindes\).met_kluit.jpg](http://commons.wikimedia.org/wiki/File:Bomen_(Lindes).met_kluit.jpg)

Transmilenio: bus gutxiago, gas gutxiago

Amerika Latinoan hiri handi gehienek metroa dute. Bogotak ez du metrorik, “Transmilenio” baizik: berariazko bideetan barrena doazen autobus azkarren sistema horretako ibilgailuek 2007 urteaz geroztik negutegi efektuko gasen emisiorik ez egitearen ziurtagiriak jaso izan dituzte.

“Hasiera-hasieratik, jende gehiago bus gutxiagorekin garraiatzera zuzendu zen proiektua; ibilbideen programazioa teknikoagoa da eta teknologia hobeak, CO₂ko emisio gutxiago eragin daitezten” adierazi dio BBC Mundo-ri Transmilenio enpresako gerentea den Jairo Fernando Paez-ek.

2000 urtearen amaieratik, Transmilenio horri esker, ez dira emititu 1.177.000 tona CO₂.



17

Antola dezagun ikasgelan goi bilera bat, emisioen murrizketaz



Gizarte-aktoreen ordezkari diren **talde txikitan** antolatuko gara. Horietako bakoitzak, bere interesen arabera, klima-aldaketa geldiarazteko edo mantsotzeko proposamenak eratu eta argudiatuko ditu. Talde horietako batzuk honakoak izan daitezke:

- Herrialde industrializatueta, txirotueta eta ekonomia emergentea duten herrialdeetako (Txina, India, Brasil) gobernu-ordezkariak.

- **Nazioarteko erakundeak.**

- **Enpresa transnazional eskergak.**

- Elkarlan eta ingurugiro alorretako **governuz kanpoko erakundeak** eta bestelako gizarte-kolektiboak.

- **Kazetariak.**

Goi bilerak, bilerak egin aurretik, lehen parte bat izango du: bertan, herrialde bakoitzak bere estrategia eta bere proposamenak eratu eta GKEak (hitzez baina botorik gabe), berriz, estaturen bat konbentzitzeko ahaleginetan arituko dira, beren jarreraren alde egin dezaten. Lehen parte honetan, jorratu edo aztertu beharreko kontuak ere jasoko dira.

Bigarren partean, gobernuetako ordezkariak eta nazioarteko erakundeak elkarturik, konpromiso behinenak jasoko dituen dokumentua jorratu, adostu eta idazteko xedez. Bigarren parte honetan GKEek ezin dezakete parte hartu baina baliteke, kanpotik, era baketsuan eta isilik, presioa eragitea.

Kazetariak, beren ikuspegitik gertakari nagusiak adierazten dituzten titularrak osatzeko, informazioa bilduko dute.

Guk, berriz, geure eguneroko bizimoduan...?

Nazioarteko bileretan harturiko neurriak eguneroko bizitzako egintzekin osatu behar dira, ezinbestez, bai kontsumo-azturen alorrean, baita mobilizazioetan esku hartuz.

18

Elkar zaitezte talde txikitan, zeuen eguneroko bizimoduko konpromisoak jorratu eta proposatzeko.

Beste hainbat web orritan, www.intermonoxfam.org/cortoycambio gunean., hainbat iradokizun bilatuko duzue.